

## **MGEP-ek praktika ona aurkezten du: Kalitatea eta segurtasuna posta elektroniko zerbitzuan**

2007/12/12

Azaroaren 29an, Informazio Sistemen sailak, "**Kalitatea eta Segurtasuna Posta Elektroniko Zerbitzuan**" Praktika Ona MCCko enpresei aurkeztu zien. Jardunaldi hauen ekimena MCCtik dator, Korporazioko enpresen artean praktika ona korporatiboen transmisioa erraztu nahi duelarik.

MGEP-en 2005ko Azarotik dago martxan Praktika On hau. Praktika On honen bitartez, spam aurkako neurriak erabiliz, birusen aurkako neurriak erabiliz, sabide iragazkiak ezarriz eta zerbitzuaren monitorizatze adierazleak definituz, posta elektronikoaren kalitatea hobetu da.

Jardunaldi hau oso ondo baloratua izan da entzuleen artean, enpresetan aplikatze gradu altua gaineratuz.

